

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al
duzu Donostia?

Berridi

Zubietako Santio elizatik hego-ekialdera Gaztelu deituriko gain zabalaren ertz batean dago Berridi (Zubietarrek laburtuz Berri deitzen dute) baserri-oinetxe bikaina. Baserri hau da Zubieta herriko lekuri garaienean dagoena; komunitate polit hau guztia dominatzen duela, esan beharrik ez dago bertatik ikus dezakegun paisaia zinez ederra dela. Bertara inguratzen gairenean segituan konturaturako gara honelako kokapen paregabe bati, etxea ere halakoa dagokiola, eta halaxe da, zinez ederra. Hiru solairu ditu eta hiru uretako teilatua gainera. Bere aurrealdean, behe-solairuaren (harlanduz egindakoa hau) eskaratz, sota edo karrera zabalak gaur itsutuak daude, baina garai batean irekiak



Zubietako Berridi baserria.

zeuden eta gurdia babes-teko erabiltzen ziren. Aurreneko solairuan sei leiho berdín, guztiak lerro-lerro agertzen zaizkigu. Hirugarren solairuak beste hiru leiho ditu etxegainaren azpian. Azken bi solairu hauek etxearen zurèzko egitura ederra nabaria dute. Aurrealdea osatuz, paretak adreiluz eginak daude eta hauek zurak utzitako tartearak

betetzen dituzte. Berridiko sendia XVI. mendetik aurrera aipatua da Zubietan, baina ziur aski lehenagotik ere hor bizi zen. Oso etxe boteretsua izan da beti, bere lur eta mendien **golde** kopurua oso handia delarik. Berridi baserriaren jabegoa Abalotz errekatik hegoaldera dagoen Gerezieta deitzen den mendia da. Ziurtatzeko dago baino badirudi

mendi hau Sorabillako herri eta komunitatearena zela, baina aspalditik Berridiren jabegoa denez, Zubieta herriari, beraz, Donostiari, dagokio.

Goldea: Azalera neurria. Golde bat: 3.333 metro karratu. Hiru golde: hektarea bat (10.000 metro karratu).

TESTUA ETA ARGAZKIA: JOSU TELLABIDE

KANTU LIBURUSKA

Zure afari, bazkari,
bidaia eta lagun giroetan
lagunduko dizun
liburuxka praktikoa

Zatoz BAGERAren bulegora (Tfnoa.: 431228)

100 pezeta
bakarrik
balio du!!

